



DSS2016.EU



## **ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

---

### **2015-09-15, IRAILEKO SAIOAREN MEMORIA**

#### **SAIOAREN HELBURUAK:**

- ▶ **Abuztuan zehar, 2016€ko kategoriarako jasotako proiektuen artean hausnarketa eta esleipen ariketa egin talde lanean.**
- ▶ **Hautatuko proiektuen onarpena.**
- ▶ **Balorazioak: egunekoa.**

#### **PARTAIDEAK:**

- **2016 BULEGOTIK:** Enara Garcia, Partaidetza Zuzendaritza.
- **ARDORA LAN TALDEA:** 6 partaide (Ardora 1 Lan taldekoak), 3 emakumezkoak eta 3 gizonezkoak.

## **ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

---

### **1. SARRERA ETA SAIOAREN KOKAPENA**

---

Saioaren helburuak kokatu dira Ardora lan taldearen funtzio zehatzen baitan, eta zehazki, Energia Olatuak programara abuztuan zehar aurkeztu diren proiektuen esleipena kategoria bakarraren arabera:

#### **-2.016€ko 5 proiektu**

Sarrera gisan, aipatzen da ere Ardora 1 Lan taldea deitua izan dela hil honetan bi kategorien baitan 70 proiektuetatik gora aztertu behar zirelako, eta ezinezkotzat edo oso gogortzat jotzen zelako horien irakurketa egitea eta gerora talde lanean denak aztertzea. Hori dela eta, bi kategorien arabera egingo da lana iraileko saio honetan:

- 2.016€ kategoriari dagozkion 5 proiektuak ARDORA 1 Lan taldeak aztertu eta esleituko ditu.
- 20.160€ko kategoriari dagokion proiektua ARDORA 2 Lan taldeak aztertu eta esleituko du.

Horrela, akta hau 2016 kategoriari dagokio, eta 20.160 kategoriaren lanketak beste aparteko akta izango duela argitzen da.

Horrela argiturik, eguneko talde lanari ekin zaio.

## **ARDORA LAN TALDEA:**


*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

## **2. HAUTAKETAK EGITEKO LAN DINAMIKAK**

Orain arteko lan dinamikaren iraupena hobetze arren, eta azken taldeetan egin den bezala, balorazioaren ariketa egokitu da:

- Lan talde bakarrean baloratuko dira 22 proiektuak
- Bakoitzak irizpideen balorazioa egingo du bere fitxan, eta amaieran fitxa entregatuko du (batzuk etxetik egingo dira ere ekarri dute).
- Soilik konpartituko dira totalak, eta totalen gainean egingo dira hurrengo balorazioak.
- Balorazio kualitatiboa egiteko 22 proiektuak hartuko dira kontuan, eta horien gainean egingo da hautapen kualitatiboa.

Taularen gainean, eta partaide bakoitzak fitxa eskuan duelarik, ariketa egin da. Konpartitutako totalen arabera, emaitza kuantitatiboa behatu da, eta errepasatu dira zeintzu proiektu dituzten balorazio altuenak. Segidan, partaide bakoitzak bere bost gometza banatu ditu gustukoa eta nahi izan dituen proiektuen gainean. Ariketak eginik, jarrian azaltzen da sorturiko emaitza:



**ARDORA LAN TALDEA:**

Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015

2.016€	KODEA	244	337	338	339	340	341	342	343	344	345
	IZENA	CASA DE LLUVIA	GRETEL ETA BERE ARAZO TXIKIA 6.	BEGIRAK	WE ARE HEBE 7.	<b>TURISMO INKLUSIBO</b>	UR ARTEAN	<b>ABELBIDEA K TRANSMEDIA XPERIENCE</b>	LAMIAK	FUEGOS ARTIFICIALES EXPOSICION	FUEGOS DESDE TODOS LOS RINCONES
	BALORAZIOA	-5,-3,-5,0,-2-2 =-17	1,-1,-1,3,1,3 =6	2,2,-3,0,-1,-5 =-5	4,-4,-3,4,1,1 =3	3,1,-2,5,2,3 =12	1,1,-3,1,1,-1 =0	3,2,-3,1,3,4 =10	2,-4,-3,0,-1,-5 =-11	2,5,-3,0,-5,-2 =-3	2,5,-3,1,-2,-5=-2
TOTALA											

2.016€	KODEA	346	347	348	349	350	351	352	353	354	355	356	357
	IZENA	FUEGOS ARTIFICIALES LIBRO 8.	DONOSTIAKO TXINATARRAK DOKUMENTALA	AÑO NUEVO CHINO	POLONIA MAS CERCA VIAJE MUSICAL	EDOZEIN DONOSTIA	Amets giltza	<b>Euskarako istorio barregarri eta laburren kontalari berriak</b>	Cultura cervecera	<b>Orkaniken irrintzi</b>	<b>Teatro de conciencia</b>	II Errepublik Donostian	Gerra zibila Donostian
	BALORAZIOA	2,5,-3,2,-2,-5 =-1	1,-1,-2,2,1,-2 =-1	3,2,-2,0,0,2 =5	4,0,-3,0,1,-4 =-2	2,1,-1,0,1,-5 =-2	-1,0,0,0,1 -4=-4	5,2,5,0,2,-4 =10	-1,1,-4,0,0,-5 =-9	5,1,4,0,-1,0 =9	3,-3,2,0,2,0 =4	0,2,1,0,-3,-5 =-5	0,2,1,0,-3,-5 =-5
TOTALA													

Behin partaideek haien lehen balorazio kualitatiboa eginik, azpimarratu dira bost proiektu. Zehazki, puntuazio altua izateaz gain, 3 gometza baino gehiago jaso dituzten proiektuak azpimarratu dira. Bi balorazio horiek eginik, eta ordena zehatzik gabe, honako proiektuak izendatzen dira **2.016€ko diru-laguntza jasotzeko:**

- ▶ **KODEA 340: Turismo Inclusivo.**
- ▶ **KODEA 342: Abelbideak transmedia xperience.**
- ▶ **KODEA 352: Euskarazko istorio barregarri eta laburren kontalari berriak.**
- ▶ **KODEA 354: Orkaniken irrintzia.**
- ▶ **KODEA 355: Teatro de conciencia.**


Bost horiek izendatzeaz gainera, beste hiru proiektu hautatu behar dira ordezeko gisa. Ordezkoek bai izan behar dute ordena zehatza. Horretarako, zehaztu dira zeintzuk izan daitezkeen hautagaiak, zehazki, bi irizpide hautakoren bat betetzen duena:

- Puntuazio altua edota positiboa jaso dutenak
- Gometza berde batetik gora jaso dutenak

## **ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

---



Honakoak izan dira baloratutako hausnarketak eta eztabaian gehien sortu diren argudioak:

- Proiektuak 2016ak sustatu nahi dituen baloreekin bat egiten duen neurriaz hausnartu da. Kasu batzuetan proiektuetan jasotzen dena ekintza kultural bat baino, ekimenarekin "marketing" kanpaina bat izatearen mugan dagoela baloratu da.
- Proiektuek duten enfokea edo ikuspegia ere izan da aztergai, "Gretel eta bere arazo txikia"ren kasuan, ezaugarri konkretu bat baino gaia "arazo" bezala planteatzean, ikuspegia aldetik egokitasuna zalantzan jarri da.
- Gaiak eta proiektuak izango duen publiko objektiboa eta inpaktua ere baloratu dira.
- Momentu jakin batean, irizpideetan emandako balioetara jo da, zehazki zein irizpide izan diren baloratuenak jakiteko.

Gometza urdin eta gorriekin egin dira beste balorazioak. Horrela, jarraian azaltzen direnak dira, eta ordena horren arabera, esleitzen diren ordezeko proiektuak:

- ▶ 1. Ordezkoa= 337 KODEA: GRETTEL ETA BERE ARAZO TXIKIA
- ▶ 2. Ordezkoa= 339 KODEA: WE ARE HEBE
- ▶ 3. Ordezkoa= 346 KODEA: FUEGOS ARTIFICIALES LIBRO

Beraz, hiru horiek eta ordena horretan izendatzen dira, eta aurreko baten batek erretiratuko balu horiek izendatuko dira.

## **ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

---

### **3. BALORAZIOA:**

---

Berriro ere partaide denei eskatu zaie saioaren balorazioari dagokion galdetegi betetzea:

- SAIOari dagokiona, hots, 2015-09-15 dataren saiokoa, 2.016€KO KATEGORIA.

Galdetegia betetzeaz gain, honako balorazioak eta komentarioak konpartitu dira:

- ✓ Bilera bera oso emankorra eta interesgarria suertatu zaie, eztabaidarako aukera izan dutelako. Gai zehatzetan sakontzeko aukerak norberak zuen ikuspegia zabaldu edo aldatzera eraman dituen ere aipatu dute.
- ✓ Eztabaida eta ikuspegi ezberdinak ikusi eta entzun ostean hasierako puntuazioa aldatuko luketela aipatu du pertsona batek.
- ✓ Saioan lan egiteaz gain ondo pasa dutela aipatu dute guztiek.
- ✓ Denbora pasa ahala dinamikak eta egitekoak zehaztasun maila altuagoarekin egiteko gaitasuna ikusten dute beraien buruetan.
- ✓ Eskatzen duen denbora ikusten da hobetzeko aldagai bat bezala. Ardorakide izan aurretik inbertitu beharreko denbora jakin izan balu, parte hartuko ez lukela aipatu du pertsona batek, orain, oso gustura parte hartzen duela konfesatu duen arren.
- ✓ Guztiak azaldu dira prest ondorengo saioetan errefortzua behar izatekotan berriro ere parte hartzeko.

**ARDORA LAN TALDEA:**

*Energi olatuak programak emango dituen diru-laguntzak zehaztuko dituen lan taldea, 2015*

---

---

**4. AGURRA ETA HURRENGO BATERAKO AUKERA IREKITA UZTEA**

---

Bilera amaitu aurretik azpimarratu da haien jarrera irekia eta baikorra deialdira, eta berriro ere horren aukera eskaini zaie Azarorako. Oraindik ezer jakirik ez bada ere, aurreikusten da azaroan 20160€ kategorian proiektu poltsa majua egotea berriro, eta beraz, laguntza. Hemendik aurrera, ARDORA 2koei ere luzatuko zaie gonbitea hemendik aurrera, eta beraz, errefortzuko lan talde gisa 1 eta 2ko bolondresak izango direla esan da.

Eta asko eskertuz eskainitako denbora eta emandako guztia, txalo zaparradarekin amaitu da saioa.

**Horrenbestez, bilera amaitutzat eman da iluntzeko 20'20etan.**

**Donostian, 2015eko irailaren 15ean.**